

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko maiatzaren 18an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Txanda merkatari elkartearen 2023ko dirulaguntza izenduna onartzea.

Alkate-udalburuaren 2023ko maiatzaren 15eko proposamenak dio:

Gaia: Txanda merkatari elkartearen 2023ko dirulaguntza izenduna onartzea.

Unai Kortabarria Errastik (Sozioekonomia eta turismo batzordeko idazkaria eta sozioekonomia teknikariak) bere proposamen txostenean honakoa jasotzen du:

Expediente zk. 2023ZDIZ0013

Gaia: Txanda Merkatari Elkartearen 2022ko dirulaguntza (izenduna)

Prozedura: ZDIZ Udalak emandako dirulaguntzak (izendunak-zuzenak)

Hasiera-data: 2023/05/08

Erregistro zenbakia: 2022/ 2863

Txanda Merkatari Elkarteak herriko merkataritzaren sustatzeko dirulaguntza jasotzeko 2023ko ekitaldian garatuko duen ekintza plana aurkeztu du udalean.

Jarraian azaltzen dira aipatutako gaiarekin lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak tokiko merkataritzaren sustatzeko eta lehiakorrago bihurtzeko eginkizuna du eta helburu hori betetzeko eguneratu zuen 2020 eta 2021 ekitaldietan zehar Oñatiko Merkataritzaren Biziberritzeko Plana, Txanda elkartearekin eta sektoreko eragileekin batera. Plan horretan zehazten dira datozen urtetan tokiko merkataritzaren sustatzeko eragile bakoitzak, tartean Txanda elkarteak, garatu beharreko lan ildoak eta ekintzak.

Bigarrena.- Txanda Txantxiku Merkatarien Elkartearen Oñatiko txikizkako merkataritzaren sektorea sustatzeko, profesionalizatzeko eta elkartegintza indartzeko helburua daukan udalerriko erakunde bakarra da. Jarduera horrek izaera berezia ematen dio eta herri- gizarte- eta ekonomia-interesekoa dela aintzat hartzen da.

Hirugarrena.- 2023ko maiatzaren 8an Vilma Haydee Soto Herrerak, Txanda merkatari elkartearen izenean, 2023ko ekintza plana garatu ahal izateko dirulaguntza eskaera aurkeztu du.

Laugarrena.- Oñatiko Udalak Txanda Txantxiku Merkatarien Elkarteari ematen dion dirulaguntza izendunak elkartearen eta udalaren arteko lankidetzaren publiko - pribatua dauka oinarria. Bi erakundearen arteko elkarlana funtsezkoa da Oñatiko hiri-merkataritzaren garapena sustatzeko. Arrazoi horregatik ematen zaio dirulaguntza izenduna Txanda elkarteari eta ez da jarraitzen prozedura irekia (38/2003 Legearen 22-2. Art.).

Bosgarrena.- Eskaerarekin batera 2023ko ekintza plana aurkeztu da eta bertan zehazten dira ekitaldian zehar elkarteak garatuko dituen ekintzak.

Besteak beste honako hauek:

- Komunikazio kanpaina
- Dendarien bitxikeriak
- Udazken neguko azken txanpa
- Martxoak 8
- Udaberri-udako kanpaina

- Frantziako tourra
- Udaberri-udako azken txanpa
- Udazkeneko kanpaina
- Gabonetako kanpaina
- Goienako kanpaina
- Saltokien reels-ak
- Lokal hutsen bideoa
- Formakuntza + misioa
- Merkataritza bulego tekniko eta beste batzuk.

Seigarrena. - 2023ko Sozioekonomia Saileko udal aurrekontuetan izendatuta dago 1000.480.241.03.01 2023 (5653) partida zenbakia duen kontu sail bat, tokiko merkataritza sustatzeko (Txanda Merkatarik. Dirulag.) 20.000 euroko zenbatekoarekin.

Azaldutako aurrekarien balorazioa eginda, hauek dira dirulaguntza emateko ezartzen diren baldintzak:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak gehienez ere 20.000€ arteko dirulaguntza emango dio Txanda merkatarik elkarteari, 2023ko ekintza plana garatzeko.

Bigarrena.- Elkarreak 2023an jasandako gastuen %100 finantzatzeko erabili ahal izango da dirulaguntza, betiere aurkeztutako ekintza planarekin lotura badute eta jarraian zehazten diren mugak aintzat hartuta:

Bezeroei zuzendutako kanpainen barruan egiten diren zuzeneko diru banaketetan (fidelizazio txartela, erosketa bonoak, lehiaketetan banatutako sariak,...) muga bat ezartzea. Horrela, dirutan banatzen de zenbateko totalari dagokionez, udalak ez du onartutako gastuaren %20 baino gehiago diruz lagunduko.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, beti ere, gain-finantzazioa gertatzen ez bada. Kasu horretan udalak emandako dirulaguntza zenbatekoa gutxituko da gastu eta sarreraren arteko diferentzia orekatu arte. Gain-finantzazioa gertatzen bada elkarreak izango du udalari jakinarazteko eta dirulaguntza itzulketa egiteko betebeharra.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa 2023ko ekitaldia amaitutakoan zehaztuko da. Horretarako elkarreak ekintzen memoria eta diru sarrera eta gastuen justifikazioa aurkeztu beharko ditu.

Laugarrena.- Oñatiko Udalaren dirulaguntza era honetara ordainduko da:

Dirulaguntzaren %50, hau da, 10.000€, hitzarmena sinatzen den momentuan.

Dirulaguntzaren gainontzeko zenbatekoa, gehienez ere %50a osatu arte, ekitaldiaren amaieran memoria eta zuriketa ekonomikoa aurkeztu eta udalak onarpena emandakoan.

Bostgarrena.- Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko da:

Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria.

Gastuaren izaeratik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira:

Gastuaren ordainagiriak, Txanda Merkatarik Elkarrearen zigiluarekin, gastuaren data eta zenbatekoarekin eta hartzailerearen izen-abizen, NA zenbaki eta sinadurarekin. Elkarreak banatutako sariak ere era horretan justifikatuko dira.

Deskontuak eta antzekoak fidelizazio txartelaren bidez burututakoak badira,txartela kudeatzen duen entitatearen zigilua daraman agiria aurkeztuko da, bertan era horretako mugimendu guztiak identifikatuta, egitasmoa bereizita.

Elkarrearen diru sarreraren azalpenak eta horren egiaztagiriak:

Diru laguntzen ebazpena edo ordainketaren agiriak.

Bazkideen kuoten ordainagiriak.

Beste diru sarrerarik balego, horren justifikazio dokumentala.

Horrela beraz, gaia Sozioekonomia eta Turismo batzordean azaldu ondoren, erabaki proposamena hau egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.- 2023ko ekintza plana garatzeko Txanda Merkatarik elkarrearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea eta plan hori gauzatzeko dirulaguntza onartzea, goian zehaztutako baldintzetan.

Bigarrena.- Hitzarmen honek urte bateko iraupena izango du, eta epe hori igarota, ondorioz gabe geratuko da.

Hirugarrena.- Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoa onartzea (2023ko ekitaldirako 20.000€ arteko dirulaguntza) 1000.480.241.03.01 2023 (5653) diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura. Eta dirulaguntza zenbatekoaren %50 ordaintzea hitzarmena sinatzen den momentuan.

Laugarrena. - Dirulaguntzaren onuraduna Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) argitaratzea.

Bostgarrena.- Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Saileko teknikaria izendatzea udaleko arduradun hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

Seigarrena.- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta Sozioekonomia Saileko teknikariari jakinaraztea.

Bederatzigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua araber.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

Izaro Elorza Arregui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan

